

# Azkue eta euskal hizkuntzaren duintasuna

## *Txomin Peillen*

Gizarte jakintza guztietan bezala, bakoitzaren iritziek eta ustekizunek ikertzailearen iragazki bezala jarduten dute. Beraz bilketa lan guztietan, beti gai hutsuneak aurki genitzake. Bestalde berriemaileekin harremanetan ere haien hizkuntza ahuleziak eta hutsuneak ager daitezke. Horregatik Azkueren obra baloratzeko unean garaia, giroa eta jendeak kontutan hartu behar ditugu.

Azkuek, Euskal *Erriaren Yakintza* edo *Cancionero Vasco* argitaratzean, liburu-kien hitzaurretan, han-hor aitortzen du gaiak aukeratu, guraizekin, haizturekin idazkiak birmoldatu eta hizkuntza orraztu duela. Berak bere burua folkloristatzat ematen etnologo, hortik eta apez izatetik, agian, jokabide horiek.

### ZERGATIK

Ez zaigu ahaztu behar ez zuela, Barandiaranen gisa, Azkuek aleman eskolako etnologia formakuntza izan. Berak ez zuen etnografia hutsaren egiteko irrisik. Garai hartan, ordea, euskal kultura gaitzetsia zen eta buruaren zutitzen hasia. Azkuek, kultura oinarri duina izango zen altxorra eskaini nahi zuen, gure aberriari. Noski altxorretan harri ederrak, urreak eta zilarrak biltzen dira eta egunerokotasunak sortu ikatz, lohi, petrolio, zimauro eta zaborrak baztertzen.

### ZABORRAK

Abadea zenaz gain ezin zezaiokeen eskatu erotismoaz, subertsioaz zerbait bil zezan. Baztertu zituen keriak, lizunkeriak, burgesen eta apezan aurkako bertso gehienak, ipuin ximpleegiak hala nola Peru ta Mariarenak. Azken horiek direla-eta Jon San Martin bere *Euskal literaturaren inguruan* liburuan idatzi zuen “Itxura denez *Peru ta Maria* izenez ezagutzen diren ipuinak ez zituen maite Azkuek, bi baizik ez dira ageri beretan beste guztiak aurkeritxoak baizik ez ziren, esanaz (*op.cit.* Donostia: Hor Dago, 1980, p.122)

Apeza zelako bakarrik egin ote zuen? Ez dut uste. Prakadunek berdin egiten zuten eta jadanik idatzi nuen nola Oihenarte abokatuak Etxepare zentsuratu zuen, eta J.D.J. Sallaberry mauletar abokatuak, nahiz ezkerreko gizon izan, notable izanki Etxahunen lan satirikoak ez zituen argitaratu nahi izan. Mauleko artxiboan dauden haren berrehun kantuetan, Etxahunen satira baten bazterrean norbaitek frantsesez idatzi, otoi ez dezazuela inori aipa holako kirtenkeriez arduratu naizela.

XIX. mendea eta XX. mende erdia, XVII.a bezala oso puritanoak ziren. Puritanismoaz kanpo bazen beste arrazoirik gaien guraizez ebakitzeke, alegia, *Cancionero Vasco* horretan bederen, «Cancionero» kontzeptua orduan zer zen oroitu behar zaigu. Hain zuzen Azkuek VII. tomoaren hasieran aitortzen du gaztelaniazko hitzaurrean espainolek eta alemanek egin «Cancionero» delakoak gaien aldetik eta hizkuntzaren aldetik goi mailako eta kultoak direla, baina noski ez dira herrikoiak. Azkueren tentazioa izan zen herrikoietik abiatuz zerbait duin egitea, XIX. mendean finlandiarrek *Kalevalarekin* eta Bretoiek *Barzaz-Vreizh* ekin egin zuten moduan. Hona zer dion, hortaz, Azkuek:

«Pudo el folklorista haber recogido más estrofas de estas canciones, pero por su falta de interés y carencia de poesía hubo de contentarse, por lo general, en anotar sólo la primera estrofa.

«Alguien comparando nuestro Cancionero con alguno de otro pueblo, podría creer que los otros «cancioneros» rebosan de poesía, que tanto se echa de menos en muchas de nuestras canciones. Un gran folklorista francés moderno Tiersol llegó a admirar la honda poesía de las canciones populares andaluzas y precisamente la que él citaba como tal era obra no del pueblo, sino de Fernán Caballero.

«Tal sensación podría cualquiera experimentar ojeando y hojando algun «cancionero» popular alemán. Si sus composiciones poéticas fuesen obra del pueblo, ciertamente podría uno hasta ruborizarse al dar a la publicidad nuestras humildes poesías populares; Goethe, Schiller, Heine, Wieland y otros excelsos poetas figuran en «Cancioneros» de la docta Alemania.

«Algo análogo se podría acaso hacerse entre nosotros el día de mañana, escogiendo las mejores melodías populares en número como de tres a cuatro centenares y abriendo entre nuestros poetas, concurso pero de verdad.

«Mientras tanto, conténtese el lector con saborear humildes producciones de ignorados bertsolaris que ni tuvieron siquiera noción de la poesía».

Gaien murrizte hori ustegabeen ere gerta daiteke. Etnologoen ez dugu formakuntza orojakituna, gure-gurea dugun kultura eta ustekizunen arabera egiten ditugu galderak. *Herri Sendakuntzaz Zuberoan, Anuario de Eusko Folklore* argitaratu didan liburuan, Barandiaranen itaunketa erabili nuen. Laster, hasi baino lehen, hutsune larri batez konturatu nintzen, lotsaz edo ahaztuz jendeek ez zuten sexurik ez gerru aparturik, haurgintzaz ezer.

Ez uste hobeki atera nintzela? Lotan nituen aurre-iritziak neuzkan. Nire sendakuntza galdeketa arrazionalismoz itoa, praktika zintzoez galdetzeko egina zen. Zorionez grabatzen dugunean eta grabatzen dugulako abantailarekin berriemaileak anekdoten edo beste gertaeren kontatzen uzten ditugu eta orduan azti botika, erremedio bitxiak, praktika zahar zuzen eta okerrak, ustekizun on eta txarrak galdetu gabe agertu zitzaizkidan. Bai honelako anekdota jakingarri asko bildu omen dituzte Hizkuntza Atlasean ibili direnek.

Etnologoak bi ikerbide ditu: edo bere kulturaren, bere hizkuntzaren etnografia egin. Hori da Azkueren kasua, nahiz hizkuntzaren ulerkeran edo bilketan akatsak izan. Beste bidea, Frantzian oso modan, ez denborarik galtzea azpikulturako hizkuntza baten ikasten eta interpretea erabili. Horrek dakar mentalitateen ez ulertzea, itzultzailearen mirailak itxuraldatzea, hitzen pisua ez ezagutzea. Iparraldean ezagutzen ditut bertsolaritzaz arduratzen diren bi ikerle, euskararik ez dakitenak!!

## AZKUEREN GARAIA

Azkuek zeuzkan abantaila eta oztopoak ugari ziren. *Alde onak?* Oraindik herri-kultura bizi-bizian egotea. Bigarrenik beste kulturen ezagutzak ematen zion beharrezko urruntasunaren edukitzea. Bestalde berriemaileekin euskara erabiliz uzta ederra bildu zuen. Gehienetan itzultzaile gabe ez zen corpusa aldatuegia. Askotan ezagunak zituen berriemaileak. Gazte gaztean gertatu zitzaidan pott egitea ezezagunekin galdera egitean. Baina Azkuek apezaren abantaila zuen. Prasadunek kofesatzen ikasi ez dugulako hobe dugu gure berriemaile ezagunenekin ibiltzea.

Gure herrietan, euskaraz galdetzeak abantaila handia du. Berriemaile onek, nahiz erdal eskola zerbait izan edo eskola hori jasan dutelako, euskaraz trebeago dira bai eta erdal kultura arrazionalistek sortu debekuak ahazten dituzte. Hots, gu ez gara eskola maisu trufalariak.

*Alde txarrak?* Azkuek ez zituen eta ezin zituen euskalki guztiak ezagutu, horregatik, lotsorki, Eexen entzun dudana euskalki bakarrean, familiakoan, ama euskalkian zubereraz egin ditut nire ikerlan gehienak. Zoritxarrez Davant-i eta bioi gertatzen zaigu zuberotar ez diren ikerlariak, erreserbetako amerindiarren moduan ikusten gaituztela eta ez gaituztelarik kontsultatzen gure lanak, gure lekukotasunak, *testis nullus*-tzat ematen. Zuberotarrok liburu oso bat idatzi behar genuke gure munduaz eta gure hizkuntzaz idatzi diren hutsen zuzentzeko. Gaur esan dezaket etnografian, etnologian, hizkuntzalaritzan, Henri Gavel, Robert Lafon, Jean Haritschelhar, Jean Larrasquet, Jon Etxaide eta Kepa Larriñoa direla bakarrik osoki fidagarriak.

## AZKUE ETA EROTISMOA

Azkuek bere hitzaurrean gai ausartak, bertso txarrak(?) entzun dituela eta haien lekuan bere olerkiak ipini dituela, dio. Hau ez da inolaz ere etnografia zientifikoa, hau litzateke agian folklore egitea, herriaren hoberena edo hobetua ematea. Maiz zuberotarrak, ihautiri bertsoekin ohituak direnak eta manexek eman fama txarragatik gure bertso txarrak aipatzen ditu, baina hamarnaka dira bizkaierazko eta gipuzkerazko kantu aldatuak. Hegoaldean ez dira Ekialdean baino aratzago, garbiago: duela hogeit bat urte gipuzkoar idazle batek zuen euskarazko hiztegi erotikoa argitaratu, berehala agortu zena. Egilea gurekin zegoen Galizian *Galeusca* batean eta behin Lugotik Santiagora, autobusean elkarrekin gindoazela, gizon horrek, isildu gabe, gipuzkoar bertso lizunak kantatu zitzaizkion eta batzuk oso gogorrak, haien ondoan zuberotarrenek kantikak diruditelako. Duela urte pareta esan nion argitara zetzala. Erantzun zidan, orain funtzionari errespetagarria eta politika gizona izanki, ezin zuela.

Zuberoan ez dugu holako kantu gogorrik, gehienak erotiko-alusiboak edo erotiko-satirikoak ditugu. Hona Azkuek zentsuratua «Beltxaren beltza»:

Gizonak dio:	Beltxaren beltza beltxaren bruneta, barnatik naizü kolpatü. arhantzeño zure lürretan nahi nikezü lanthatü
Neskak erantzuten	Lantha ezazü zure lürretan arhantze lürrek badütützü

Azkue irudikorra genuen baina urrutiegi doa batzuetan. *Arrosa eder* kantuan lehen tomoan 68. orrialdean «maitea bi besoen artean» zentsuratzen du «bi begien aitzinean» Alusiboetan, noski, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere erabil-tzen diren sinboloak eta izenak agertzen dira: aranondoa, arraina, ilarra, luma, ollanda, paboa, pipita, txardina buru gorria.

Puritanismo handia ezagutu dugu Euskal Herrian. Apur bat Europa osoan, baino astunagoa, moldegaitzagoa, baina upelari txotxa jarri zaionean, eta ez literatuaren eruz, moralaren upela zartatu da. Euskal Herrian erotismo eta pornografia gogorrak agertu zaizkigu, puritanismoaren indar eta neurrian. Txalapartak daukan erotiko saila erraz saltzen da eta erotikoa satirikoan *Ostielak* eta *Napartheidek Igela* xume eta zintzoa gainditu dute. Halaz ere badirudi erotismoa gauza serioa, sakona bihurtu dela, sexuaren debekutik sexuaren tiraniara joango ote gara, gai horretaz barre egin nahi dugunok baztertuz? Alta erotismoak obra ederrik eman lezake, gimnastika bat ez izaten dakianean.

## BERRIEMAILEEN ARAZOAK

Jadanik esan dizuet hobe dela ezagunekin etnografia bilketaren egitea. Nire aldetik, auzo zaharrekin, ahidekin ibili ohi naiz. Ez naiz sekulan ausartu Azkuek hartu zituen arriskueta Zuberoako zokoan, nire ama euskalkian. Berriemaileen adina dela-eta, batzuetan gazte batek edo gazteago batek zaharrak baino hobeki erantzun dit eta osoki eskola gabea ez zait orainarte sekulan baliatu, ez baitute ulertzen zer nahi duzun eta ez baitakite beren hiztegi hibridoan euskara eta erdara beti ongi bereizten. Gero aurkitu behar pazentziako berriemailea eta euskara ongi ahoskatzen duena.

Berriemaile eta ikerlarien artean ahal direnak eta ezin direnak badira. Hegoaldean, zergatik ez zuen lizunkeriarik entzun Azkuek, agian, han abadearenganako errezelu eta begirune gehiago zegoelako. Iparraldean, batik bat Zuberoan, jadanik, apeza ez zen jende sakratua eta mutiriki diote «aphezak gü bezala tützü, ez tützü gü beno hobe».

## AZKUE ETA KANTUTEGIA

Kantuetan Azkueri jakingarriena zena, melodia zen ez testua, beharbada horregatik hizkuntza ez zuen hainbeste errespetatzen. Berak honela dio VIII. liburukian: «Si esta obra fuese de antología popular, no figurarían en ella la mitad de sus piezas, pero por ser «cancionero» se ha atendido más al mérito de la melodía que a la letra» (*Cancionero Vasco*, tomo VIII, 31. orrialdean)

Bestalde hizkuntza duinaren obsesioarekin eta erdaldunek euskaldunetan sartu herri jakituriaren gaitzespena gainditu nahi zuen.

## AZKUE ETA HIZKUNTZA

Azkuek, lan handiegia egin zuen. Ez zuen astirik eduki kantu eta ipuinen aldaeren biltzeko. Beharbada ez zukeen ezer hobetu beharrik zeren batzuetan, lekuko edo berriemaileak hizkuntza makaroniko bat erabiltzen zuelako, berriemaile batzuek euskara aberatsagoa dutela besteek baino. Gaiez mugatuz eta Jean Haritschelharrek

Etxahunez egin kantu kaierekin egin zuen bezala egin behar izan balu Azkuek Euskal Herri osorako, katuen gisa zazpi bizi behar zukeen.

Gainera, Azkuek ez zuen beti euskalki guztietan laguntzailerik eduki, bestelan zuberotar kantu bat hobetzekotan zubererazko hitz arruntak erabiliko zituen, beraz zuberotar kantu bat bost gipuzkoar hitzekin ematea ez da zientifikoa. Hona zer dioen berak biridazketaren bere metodologiaz:

Yakingai au Benaparroan ta Lapurdin euskera garbiz eman zidaten, Zuberoan, berriz, uf! iru erdarakadaz apaindua (*Euskal Erriaren Yakintza*. Lehen tomoa, 20. orrialdea)

Eta zein ziren manexek erabiltzen, omen, ez zituzten hitzak eta gaizki kopiatu erdarakadak *pladzerra*, «d», batekin(?), *xagriña* zubereraz «xangria» dena, *esperantxa*, agian, Euskal Herrian Zuberoan bakarrik erabiltzen direa? Nik erran nezake Nafarroa garaian eta Iparralde osoan ezagunak direla. Bai, garaiko ustekizunen araberaz zebilen. Bai, zuberera begitan zuen, manexek baizioten «euskara zikina» zela.

Bestalde zuberera euskalkiekin ez diren beste euskalkien hiztegiak ez ditu aipatzen eta «Eztira koplak jartzen» Orion bildu kantuan ez ditu zuzentzen ez hiru baina zortzi «erdarakada»: *kosta*, *mariñel*, *debalde*, *galanta*, *allegatu*, *buelta*, *txanbra*, ez eta Aginagan bildu kantuan: *bapo*, *jornal*, *broma*, *mantendu*, *parte*, *sobratu*, *sobra*, *reglako*, *faltatzen*, *probatu*, *justu*.

Batzuetan ez zuen testua biltzen:

ta nik, orduan, esakera bat burutu arte itxaron ta gero euskeraz yosita banan-banan papereratzen nituen

(*Euskal Erriaren Yakintza* 19. orrialdean)

*Cancionero Vasco*-n berdin honela idazten du lehen tomoaren 131. orrialdean dio zergatik bost bertso kendu dituen:

«Los tres últimos versos, apenas hacían sentido y ni siquiera tenían rima. Otras locuciones exóticas quedaban, siendo preciso para hacer nuevos versos más tiempo del que habitualmente dispone el folklorista».

Barandiaranek eta Azkuek ez zuten grabatzeko astirik izan. Beren kuaderno-txoekin eta sukalde mahai zoko batean, etxolako erdi ilunpean idazten zuten, eta maiz ezin errepikaraz, gaizki ahoskatu edo gaizki ulertu hitza. Tekno etnologian gaizki entzunak hiztegiataro igaro dira: gurdiazen karrozeria esateko Foix apaizak omen *argantetx* hitza bildu zuen eta erromaniko mailegua zitekela dio Lhanderen hiztegiak, baina gazte denboran ez dut *organtetxe* baizik entzun. Noski abade guztiek ez zuten laborantza dastatu, eta ikasiko zuten euskaraz *etxe* hitza adierazi zabalekoa dela, zerbaiten karrozeria, edo ingurua adierazten duela, hala nola *leiho-etxe*, *makina-etxe* eta *organtetxe*.

## NOLA BALIATU AZKUEREN LANAZ?

Gure herri kulturaren batik bat, haurrekin *Euskal Erriaren Yakintzako* abesti eta ipuinak erabilgari dira. Gero etnografiaren aldetik datoak ekartzen dituzte eta hobeki egin nahi badugu, badugu zer egin aldaera biltzen ezen uste baitut herri kulturaren laurdena ere ez dugula bildu. Kantuekin talde biletak abiatu dira Antton Valverderek Hegoaldean eta egin ziren Zuberoan Martzel Bedaxagarren taldearekin, zoritxarrez Mauleko *Ondarearen Etxean* argitaragabe daudenak.

Gaurko etnografian, euskal liburugintza osoan bezala, filologoen abusuak daude, edukiari baino gehiago hizkuntzari begiratzen delako? Ikerlanak gaztelania

hutsez egiteko ohitura txarra sartu zaigu, horregatik, Barandiaran eta Azkueren ondotik euskaraz jarraitzen dut, edukiaren aldetikako jakintzen biltzen *Herri Sendakuntzazkoa* eman nuen, *Ehizarena* izango da filologo frustratuen baimenik gabe. Filologoen eta mekanografoen, beren gipuzkoar mundutik ateratzen jakin behar lukete. Ez da bakarrik zuberera gaizki tratatua dena, Patxi Ondarrak badaki bere kostuz nola 11. orrialdeko zuzenketak egin behar izan zituela, asko Aita Iraizozek, Nafarroako lapurtarrean idatzia automatikoki, norbaitek gipuzkoartu zizkiolako.

Zoritxarrez gure kultura nekrofoen eskuetan gertatzen da, Euskara dakitenek ere gaztelaniaz idazten, museotarako.

Adibidez ere guk Iparraldetik bidali euskarazko testuak, bakarrik gaztelaniaz agertu ziren, *Ritos funerarios* liburu lujosoan. Hau da euskararen ehorzketa. Euskara dakitenen errua. Noski, nik ere erdaratan idazten dut eta testu elebidunetan Juan Garmendia Larrañaga eta Jose Miel Barandiaranek erakutsi bideetatik, baina Euskal ikerketen erakunde ospetsu baten katalogoan euskal kulturazko liburuak % 98 gaztelaniaz daudenean, nora goaz? XXI. mendean gure erronka litzakete erdiak euskaraz izatea.

Euskarara nola bildu jendea, geronek errespetatzen ez badugu. Horixe zen Azkueren kezka bat. Haren altxorra ez da Oiarzungo urre meatzak irudi agortua, baina J. M. Satrustegik euskal mitoen galera eta ez eraberritzeak kezkatu zegoenean, arrenkura berdina zeukan, ahoz galtzen direnak herri-jakintza horretan aurkituko ditugu gure arbasoek, aukeratu, hobetu ogasunak. Noski, corpus baten duintasuna dela-eta, iritziak iritzi, herri baten kulturaren agrikulturaren bezala lore, gari, arto eta patata egin ote daiteke lur, lohi eta zimaurre arruntik gabe?

Azkuek ez zituen Sabino Aranaren terminatxoak erabili nahi izan: euskararen muinetik atera nahi zituen hitz berriak. Noski denbora asko galdu dugu garbizalekeria eta mordoilokeriaren gatazkan. Jakin dezagun guk ere eta Orain Atlasaren altxorra daukagula euskaraz hitzik asmatzen jadanik daudenean eta erdibidetik ibiltzen hitz berrien sortzen. Hau da gizaldi berriaren benetako herronka.

Antzinako etnografo asko apezak ziren eta beren garaiko heziketa eta orduko eliza arauekin oztupoak zituzten; gaur, uste dut apezari uzten zaiola zientifikoa izaten.

Nola nahi etnografia egitean ez genituzke gure sinesteak, ustekizunak, hizkuntzaz iritziak, estetikak kontutan hartu behar, ahalaz eta etnologia egitean guttiago. Hori da zailena, gure garaiko jendeak gara. Saia gaitezen aurrekoek baino hobeki egiten. Halabiz.

\* \* \*

## Resumen

Resurrección María de Azkue, prócer de la cultura vasca, realizó una recolección ingente de textos de la literatura popular en *Euskalerrriaren Yakintza*. Siguiendo los criterios de la época a favor de la dignidad del idioma y del contenido, mejoró el idioma sin caer en un purismo y censuró los textos. Del mismo modo en el *Cancionero Popular Vasco* escribió «se ha atendido más al mérito de la melodía que a la letra» Se podrá utilizar su obra en el siglo XXI, conociendo las condiciones peculiares y límites de su época y de la nuestra.